



Hizkuntzen erabileraren kale neurketa

**EUSKAL HERRIA,
2021**

Eraitzen
laburpen txostena



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Hizkuntzen
erabileraren
kale
neurketa

Soziolinguistika Klusterra

Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.

20140 Andoain


2022ko maiatza

ISBN: 978-84-124784-2-6

Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziapean zabaltzen da.

Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>



Txostenaren egileak: Olatz Altuna Zumeta, Maialen Iñarra Arregi eta Asier Basurto Arruti

Ikerketaren zuzendaria: Olatz Altuna Zumeta

Landa-lanaren arduraduna: Maialen Iñarra Arregi

Batzorde zientifikoa: Eneko Gorri, Iñaki Iurrebaso Biteri, Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba, Paula Kasares Corrales, Xabier Isasi Balantzategi

Espazio publikoaren azterketa: Oihana Santolaria del Campo, Koldo Telleria Andueza eta Irati Otamendi Irizar

Finantza-arduraduna: Isabel Godinez Hidalgo

Komunikazio arduraduna: Asier Basurto Arruti

Datu basearen arduradun teknikoa: Nestor Urrestaratzu Ramos (Datu Tailerra)

Azpiegitura informatikoaren arduraduna: IZT Informatika Zerbitzu Integrala

Aholkularitza estatistikoa: Eñaut Urrestaratzu Ramos (Datu Tailerra)

Neurtzaileen koordinazioa: Arrate Arbaiza Lekue (Araba), Lorea Zulaika Arriaga (Bizkaia), Belen Uranga Arakistain (Gipuzkoa), Maialen Iñarra Arregi (Ipar Euskal Herria) eta Oianko Garde Jaunsaras (Nafarroa)

Babesleak:

Eusko Jaurilaritza | Nafarroako Gobernua | Arabako Foru Aldundia | Bizkaiko Foru Aldundia
 | Gipuzkoako Foru Aldundia | Kutxa Fundazioa | Bilboko Udala | Vitoria-Gasteizko Udala |
 Iruñeko Udala | Donostiako Udala | Agoizko Udala | Aittu Euskara Elkartea | Amasa-Villabonako Udala
 | Andoaingo Udala | Anoetako Udala | Antzuolako Udala | Aretxabaletako Udala | Arrasateko Udala |
 Astigarragako Udala | Azpeitiako Udala | Bermeoko Udala | Debako Udala | Eibarreko Udala-Akebai
 | Erandioko Udala | Ermuako Udala | Errenteriako Udala | Eskoriatzako Udala | Galdakaoko Udala |
 Gernika-Lumoko Udala | Getxoko Udala | Gorbeialdeako Kuadrilla | Hernaniko Udala
 | Hondarribiako Udala | Laudioko Udala | Legazpiko Udala | Lekunberriko Udala | Lezoko Udala |
 Oiartzungo Udala | Oñatiko Udala | Ordiziako Udala | Pasaiko Udala | Sakanako Mankomunitatea
 | Txorierriko Mankomunitatea | Urduñako Udala | Urnietako Udala | Urretxuko Udala | Usurbilgo Udala |
 Zaldibarko Udala | Zarauzko Udala | Zestoako Udala | Zumaiko Udala | Zumarragako Udala

AURKIBIDEA

1.- AURKEZPENA.....	05
2.- KOKAPENERAKO ZENBAIT OHAR	06
3.- IKERKETAREN IBILBIDEA.....	10
4.- HELBURUAK.....	11
5.- METODOLOGIA.....	12
5.1.- NEURKETAREN EZAUGARRIAK.....	13
5.2.- LANDA LANAREN DESKRIBAPENA	14
6.- EMAITZAK	16
7.- ONDORIOAK.....	38
7.1.- ZERTAN DA EUSKARAREN KALE ERABILERA?	39
7.2.- NONDIK EGIN AURRERA?	43
7.- JARDUNALDIA.....	44
8.- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA.....	45

1 AURKEZPENA

Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Euskal Herria, 2021

Txosten hau Euskal Herriko 2021eko Hizkuntzen erabileraren kale-neurketaren emaitzen laburpena da. 1989tik egiten den ikerketaren zortzigarren edizioa da honakoa. **Kale-neurketak hizkuntzen presentzia kuantifikatzen du kalean entzundako elkarrizketa informalak behatuz.** Datu-bilketa zabalak aukera ematen du Euskal Herri mailako, lurraldeetako eta hiriburuetako emaitzak ezagutzeko; baita adinaren, sexuaren eta haurren presentziaren eragina aztertzeko ere.

Emaitza hauek eta ikerketaren txosten teknikoa, informazio eta emaitza guztiak modu xehetuan azaltzen dituen, eskuragarri daude **www.soziolinguistika.eus/kaleneurketa2021** webgunean.

Bat Soziolinguistika Aldizkariak Hizkuntzen erabileraren kale-neurketari buruzko zenbaki monografikoa argitaratuko du 2022an bertan.

Ikerketa honekin batera, hainbat udalen eskariz udalerri mailako hizkuntzen erabileraren kale-neurketak egin dira.

2

KOKAPENERAKO ZENBAIT OHAR

Erabilerak izaera poliedrikoa du, ertz asko ditu

Hizkuntza-erabilera ez da egonkorra, ezta indibiduala ere; une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak baldintzatzen dute. Horregatik, datuok interpretatzeko, **ukipenean dauden hizkuntzen erabilera-arau sozialak** eta **adierazle demografikoak, soziologikoak eta soziolinguistikoak** hartu behar dira kontuan.

Une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak baldintzatzen dute hizkuntza-erabilera.

- Euskal Herriko biztanlerian azken urteetan **migrazio-saldo positiboa** izan da, horrek dakarren kultur-aniztasunaren handitzearekin. Aldi berean, **zahartze-tasak** gora egin du.
- 2020tik aurrera, **COVID19aren pandemiaren eraginpean**, are nabarmenagoa izan da aldaketa-giroa. Oro har, pandemiak nabarmen eragin du kaleko giroan eta herritarren arteko zuzeneko harremanetan. Kutsatzeko beldurrak, udalerrien itxiera perimetralek, etxeratze-aginduek, elkarretaratzeko mugek, tabernen ordutegi murrizketek eta abarrek herritarren bitzta aztoratu dute.
- Azken 30 urteetan tokiak eta **kaleak aldatu dira**, baita jendeak klean egoteko eta **kaleak erabiltzeko moduak ere**. Globalizazioak ekarritako logikan txertatu dira bizi-inguruneak eta Euskal Herriko kaleak, mendebaldeko beste edozein hiri-inguruk izan duen bilakaerarentz doaz; homogeneotasunerantz, estandarizaziorantz, eta, ondorioz, tokiko nortasunaren galerarentz.
- Zonifikazioaren hirigintza-estrategiak eta auto zein errepideen ugaritzeak ekarri du, besteak beste, **pertsonen egonaldiak urriagoak eta laburragoak izatea espazio publikoan**; aurrez aurreko kontaktuak murriztu dira, soziabilitatea galdu eta, baita, segurtasun sentsazioa kolokan jarri ere.
- Kaleak eta plazak elkar zaintzarako baino, kontsumo eta produkzio logiketarako prestatu dira. **Merkantilizazio-prozesua** gertatu da. Tokiko komertzioak desagertu dira, eta turistek edo aisialdiera zuzendutako jarduerak tokia hartu dute.
- **Globalizazioaren** eraginez sakon eta bizkor ari da eraldatzen gizartea. Lurralde arteko **mugikortasuna** erraztu eta handitu da, eta horrek **kultur arteko harremanak** ugaritzea eta garatzea ekarri du.
- **Aurrez aurrekoak ez diren harremanak indartu** dituzte ingurune digitalaren hedapenak, hizkuntza-teknologiaren garapenak eta sare-sozialen fenomenoek.
- Munduko hizkuntza gehienak arriskuan edo egoera zaurgarrian aurkitzen dira. Azken urteetan **hizkuntza aniztasunaren galera handia** gertatu da eta, aditu gehienek arabera, aldaketa esanguratsurik ezean, hurrengo hamarkadatan hizkuntza-galera asko areagotuko da.
- **Hainbat estatu-hizkuntza arduratuta** agertu dira, globalizazioaren eta, batez ere, ingelesaren nagusitasunaren aurrean, beraien hizkuntzen presentzia eta erabilera apaltzen ari baita, etengabe.



- Hizkuntza-erabilera hiztun-kopuruarekin eta hizkuntza-ohiturekin dago lotuta, batez ere. Baina **euskaldunen proportzioaren datua eta euskararen kaleko erabilera-indizea ez dira zuzenean alderagarriak**. Ezagutza-indizea datu aitortua eta indibiduala da; kale-erabilera, ordea, behatua eta kolektiboa.
- Gaur egungo **euskal hiztunaren profila** ez da orain dela 30-40 urtekoaren berdina. Orain askoz ugariagoak dira euskara jakin arren erdaraz (frantsesez edo gaztelaniaz) hobeto moldatzen direnak. Izan ere, gaur egun, haur eta gazte euskaldunen gehiengoak bigarren hizkuntza du euskara—eskolatik jaso—, eta hiztun horietako askok, praktikan, erdaraz erraztasun handiagoa dute.
- Euskaldun (ia) guztiek dute gaztelaniaz edo frantsesez hitz egiteko gaitasuna. Hau da, euskaldunen elkarriketa guztiak (% 100) izan zitezkeen erdaraz. Euskaraz aritzeko gehieneko muga, ordea, % 100 horren oso azpitik dago, aski baita solaskide batek euskaraz ez jakitea erdaretara jotzeko. **Testuinguru sozial eleaniztunean**, ezagutzak ez du hizkuntzaren erabilera determinatzen, erabiltzeko aukera baino ez.
- **Erabilerak izaera poliedrikoa du**, ertz asko ditu. Neurketa batetik besterako kale-erabileraren joera alda daiteke, eta fenomenoaren konplexutasunak ez du samurtzen aldaketa hori zer faktorek (edo faktore-konbinaziok) eragin duen asmatzea. Horregatik, ez da komeni irakurketak datu isolatuetara edo “igo/jaitsi” kontzeptuetara mugatzea, baizik eta **joerei erreparatzea**, eta, batez ere, joera horien jarraikortasunari.





3 IKERKETAREN IBILBIDEA

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak ibilbide luzea egin du. Behaketa bidezko neurketa-metodoa Siadeco Ikerketa Taldeak sortu zuen 1983. urtean, Iñaki Larrañaga soziolinguista aitzindariaren gidaritzapean. EAEn zentsuaren bidez hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak jasotzen hasi zirenean garatu zen, egoera soziolinguistikoa modu osatuagoan deskribatzeko. Lehen esperientzia horien ostean, Euskal Herriko neurketaren lehen eta bigarren edizioak bideratu zituen Euskal Kultur Batzordeak (EKB) 1989an eta 1993an. Geroztik, beste, sei aldiz errepikatu du Soziolinguistika Klusterrak (aurrez SEI Elkarteak): 1997, 2001, 2006, 2011, 2016 eta 2021.

Ikerketaren edizio guztiek oinarri metodologiko bera dute, baina, neurketa batetik bestera, hobekuntzak egin dira, emaitzen sendotasuna eta zorroztasuna handitzeko. 2011. urtean, **lagin-akatsa kalkulatzeko eredu matematikoa** sortu zen, erabilera-datuaren adierazgarritasun-maila ezagutzeko. 2016an, **datuak telefono mugikorraren bidez jasotzeko** urratsa eman zen, udalerrri txikietan. 2021ean orokortu egin da mugikor bidezko datu-bilketa herri guztietara, eta, horrez gain, **laginketa-eredua hobetu** da.

Gaur egun, ikerketa hau ezinbesteko erreferentzia da, euskararen egoera deskribatzeko edo lan-ildoak zehazteko, hizkuntza-politikako arduradunentzat, ikertzaileentzat edota euskararen aldeko lanean dihardutenentzat, esaterako.



HELBURUAK

Hiru helburu nagusi izan ditu 2021eko edizioak:

1.-

Euskal Herriko kaleetako hizkuntza-erabilerari buruz, datu enpirikoak eskuratzea.

2.-

Euskararen kale-erabilerari buruzko datuak aztertzea eta interpretatzea.

3.-

Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera ezagutaraztea, euskararen biziberritze-prozesuari begira hausnarketarako, hizkuntza-politikak erabakitzeko eta hizkuntza-plangintza diseinatzeko balio dezan.



5. METODOLOGIA



NEURKETAREN EZAUGARRIAK

Ikerketa hau behaketa bidez hizkuntzen erabilera neurtzeko metodoaren bidez burutu da. Metodo horren oinarria *“Hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa”*⁽¹⁾ gidan dago jasota.

Neurketan, hizkuntzen **ahozko erabilerari** buruzko datu enpirikoak jaso dira. Kaleetan entzundako elkarrizketetatik atera da informazioa, **espazio irekietan** solasean ari ziren **hiztunen jarduna** behatuz, alegia.

Emaitez Euskal Herriko kaleetako euskararen erabilera kuantifikatzen dute. Ikerketa **deskriptiboa** da honakoa. **Ikuspegi kuantitatiboa** du, eta, kaleko euskararen erabilera-maila neurtzeko, **behaketa zuzenaren** teknika darabil.

Teknika horren oinarrietako bat **diskrezioa** da. Hiztunak behatuak direla ohartu gabe jaso da beren hizkuntza-praktikei buruzko informazioa. Ikerketan ez dira datu pertsonalak tratatu edo erabili. Modu anonimoan bildu da informazioa, pertsona horiek identifika ditzakeen daturik edota elkarrizketa horien edukia gainera informaziorik jaso gabe.

Elkarrizketa da behaketa-unitatea: kalean dagoen pertsona baten edo gehiagoren arteko solasaldia. Kaleko elkarrizketetan, behin baino gehiagotan erregistra daitezke hiztunak. Dena den, neurraldi berean, solaskide-talde bera hizkuntza bereberean behin baino gehiagotan entzun den kasuetan, behin bakarrik jaso da praktika hori.

Kalean entzundako elkarrizketa horiek **zein hizkuntzatan** gertatu diren jaso dute neurtzaileek (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo beste hizkuntza batean). Gainera, elkarrizketa horietan parte hartu duten solaskideen ezaugarri batzuk bildu dira, zuzeneko behaketa bidez pertsonen egotzi diezazkiekegunak; inori ezer galdetu gabe: **generoa, adina eta haurren parte hartze aktiboa, hizlari gisa.**

Elkarrizketa oro **hizkuntza bakar batean** sailkatu da, horrela diseinatu zelako ikerketaren metodologia hastapenetik eta datuen konparagarritasuna ez galtzeko, besteak beste.

Neurtzaileek bikoteka egin dituzte behaketak. Datuak, nagusiki, **Neurgailuaren bidez** jaso dira, mugikorreko app bidez, alegia. Modu horretan, datu-bilketan diskrezioa hobeto bermatu da, eta, unean une, behatu den elkarrizketa kopuruari jarraipen estua egin zaio.

⁽¹⁾ Altuna, Olatz, eta Asier Basurto. 2013. Hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

LANDA LANAREN DESKRIBAPENA

- **145 udalerritan** jaso dira datuak. Euskal Herriko lurralde guztietako udalerrriak, gune soziolinguistiko guztietakoak eta biztanle-kopuru desberdinetakoak.
- Udalerrri horietan **418 ibilbide** behatu dira. Kale jendetsuenekin eta ezaugarri soziologiko desberdineko jendea neurtzeko aukera ematen dutenekin osatu dira herri bakoitzeko behaketa-ibilbideak.
- **Hego Euskal Herriko ibilbide guztietan 6 orduko behaketak** egin dira: asteazken arratsaldetan, larunbat goizetan eta larunbat arratsaldetan. **Ipar Euskal Herrian, berriz, 12 orduz** egin da datu-bilketa ibilbide bakoitzean, oro har kalean jende gutxiago ibiltzen dela jakitun izanik; hau da, ibilbide bakoitza bi astez neurtu da seina ordutan.
- Guztira **7.637 ordutan** egin dira hizkuntza-praktiken behaketak ikerketa honetan, **2021eko irailaren 17an hasi eta urriaren 30era arte**. Modu horretan, udazkeneko ordu-aldaketa baino lehenago burutu ahal izan zen jasoketa guztia, argi-orduei ahalik eta etekin gehien ateraz.
- Euskal Herri osoan **336 neurtzaile profesionalek** jardun dute datuak biltzen.
- Gainera, pandemiaren hasieratik kalean ibiltzeko eta harremanak izateko **osasun- eta lege-baldintza irekienak** indarrean zeuden epealdian burutu zen: kutsatze-datuak baxuak ziren, ez zegoen kalean musukoaren derrigortasunik, ostalaritzan ez zegoen jendea multzokatzeko mugarik ezta ordutegi murriztapenik, ez zegoen herriz-herri mugitzeko debekurik...
- Landa-lanean **ez da intzidentzia larririk egon**. Neurtzaileek kalean gertaera bereziren batekin topo egin dutenean (ekitaldiren bat, manifestazioren bat, ospakizunen bat...), esaterako, neurraldiren bat atzeratu da. Erabaki horiek guztiak ikerketaren zuzendariarekin edota landa-lanaren arduradunarekin hartu dira.
- Ikerketaren unibertsoa Euskal Herriko kaleetako hiltunek osatzen dute. Mugikortasun handiko eremua da kalea, eta ez dago unibertso hori osatzen duten kideen eta elkarrizketen zerrenda ezagutzerik. Horregatik, **lagina erabiltzen da** unibertso osoari buruzko ondorioak ateratzeko.
- Orotara, Euskal Herri osoan, **603.497 solaskide** behatu dira **215.396 elkarrizketatan, emaitzen adierazgarritasun estatistikoko egokia** bermatuz.
- Lagin horretatik abiatuz, udalerrri bakoitzeko **biztanle-kopuruaren arabera haztatu dira datuak**, eskualdeetako, lurraldeetako

145 udalerrri
215.396
elkarrizketa
603.497
solaskide

eta eremu soziolinguistikoetako emaitzak kalkulatzeko.

- Euskararen Euskal Herriko kale-erabileraren **akats-tartea $\pm\%$ 0,3koa da** ikerketaren lagin osoarentzat, % 95,0ko konfiantza-mailan eta $p=\%$ 12,6 izanik.
- Inoiz baino ordu gehiago behatu dira 2021eko edizioan. Horri esker, **inoizko pertsona kopururik altuena behatu da**. Behatutako solaskide kopurua kontuan izanda, Euskal Herrian inoiz egin den ikerketa kuantitatibo handienetako bat dela esan daiteke.

← Elkarrizketa: 1/0

Euskara

	Ema	Giz
Haurak (2-14)	- 1 +	- 1 +
Gazteak (15-24)	- 0 +	- 0 +
Heldu- gazteak (25-44)	- 0 +	- 0 +
Heldu- nagusiak (45-64)	- 0 +	- 0 +
Adinekoak (65etik gora)	- 0 +	- 0 +

Ez / Bai

Haurak hitz egiten?



EUSKARAZ ERE BAI

GAZTELANIAZ ERE BAI

FRANTSESEZ ERE BAI

Oharrak



6.

EMAITZAK

Azken bost urteotan, ez da gorabeherarik izan euskararen kale erabilera orokorrean

Euskal Herriko kaleetan, **euskaraz** ari da **zortzi lagunetatik bat**. Gehiengoak gaztelaniazko elkarrizketaren batean parte hartu du, eta gainerako laguna frantsesez edo beste hizkuntza batean jaso da.


Oro har, euskararen presentziak ez du aldaketa nabarmenik izan; ez da presentziarik galdu kalean. Are gehiago, 1989. urtetik hona, 1,8 puntu egin du gora euskararen kale-erabilerak.

Euskaraz

2016 2021


% 12,6

HIZKUNTZEN KALE ERABILERA. DATU OROKORRA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA.
EUSKAL HERRIA, 1989-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

HIZKUNTZEN KALE ERABILERAREN BILAKAERA.
EUSKAL HERRIA, 1989-2021 (%)

Hizkuntza	1989	1993	1997	2001	2006	2011	2016	2021
Euskaraz	10,8	11,8	13,0	13,3	13,7	13,2	12,6	12,6
Erderaz (gaztelaniaz edo frantsesez)	89,2	88,2	87,0	86,7	83,7	83,1	-	-
Gaztelaniaz	-	-	-	-	-	-	76,4	75,8
Frantsesez	-	-	-	-	-	-	8,3	8,8
Beste hizkuntzetan	-	-	-	-	2,6	3,7	2,7	2,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Ipar Euskal Herrian euskararen erabilerak beherantz jarraitzen du; beste lurraldeetan gorabeherak daude

Euskararen erabilera maila


% 31 Gipuzkoa

% 9 Bizkaia

% 5-6 Nafarroa Garaia
Ipar Euskal Herria
Araba

Lurraldeak hiru multzotan sailka daitezke euskararen erabilera-mailari dagokionez: Gipuzkoan hitz egiten da gehien (% 31); hurrengo postuan kokatzen da Bizkaia, % 9ko erabilerarekin; eta % 5-6 inguruko erabilera-maila dago Araban, Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian.

HIZKUNTZEN KALE ERABILERA LURRALDEAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Beste hizkuntzak, berriz, **Arabako kaleetan hitz egiten dira gehien** (% 4,6), euskararen erabilera-mailaren pare; Iparr Euskal Herriko kaleetan entzun dira gutxien beste hizkuntzak (% 1,8); eta tartean kokatu dira gainerako lurraldeak (% 2,7). Proportzio berbera behatu da Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroa Garaian.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.


Azken bost urteotan, **ez da aldaketa esanguratsurik gertatu lurraldeetako euskararen kale-erabileretan**, akats-tartearen barruan baitaude datu-puntuen gorabeherak².

Ipar Euskal Herrian beheranzko joera ikusten da euskararen kale-erabileran 1997tik.

Gipuzkoan, azken hamar urteetan sumatu da joera beherakorra. Araban, berriz, goranzko joera behatu da azken hamar urteetan. Nafarroa Garaian eta Bizkaian, azken bost urteetan, aldaketa txikia ikusi da (akats-tartearen barruan dago Bizkaiko aldaketa): Nafarroa Garaian, behera egin du erabilerak, eta Bizkaian, berriz, gora. Neurketa gehiago beharko dira joera horiek berresteko.

1989-2021 bitarteko bilakaerari erreparatuz, gora egin du euskararen kale-erabilerak EAEko lurraldeetan; eta, Nafarroa Garaian, berriz, joera gorabeheratsua antzeman zaio, nahiz eta gorabehera handiena 1,8 puntukoa den.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, LURRALDEKA, 1989-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

⁽²⁾ Gipuzkoako akats-tartea $\pm 0,7$ koa da; Bizkaiko $\pm 0,6$ koa; Nafarroa Garaiko $\pm 0,4$ koa; Ipar Euskal Herriko $\pm 0,6$ koa; eta Arabako $\pm 0,3$ koa da. 2021eko euskararen kale-erabilerari dagozkien akats horiek, % 95,0ko konfiantza-mailan kalkulatuak.


Eremurik euskaldunenean behera egin du euskararen kale erabilerak

Hego Euskal Herriko gainerako eremuetan igo egin da euskararen kale-erabilera 1993tik hona.

1993tik 2006ra bitartean, goranzko joera zuen euskararen kale-erabilerak eremu soziolinguistiko guztietan. 2006tik, ordea, joera beherakorra hartu dute. Azken bost urteetan, eremurik euskaldunenean nabarmentzen da euskararen kale-erabileraren jaitsiera.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, azken bost urteetan, ezagutza gutxiagoko eremuetan (BAM⁴ eta Lapurdi barnealdea), ez da alde esanguratsurik egon euskararen kale-erabileran. Ezagutza gehiagoko eremuetan (Nafarroa Beherea eta Zuberoa), ordea, behera egin du euskararen kale-erabilerak, 2011ko mailara itzuliz.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, EREMU SOZIOINGUISTIKOEN ARABERA. HEGO EUSKAL HERRIA, 1993-2021 (%)³



EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, IPAR EUSKAL HERRIKO EREMUETAN, 2011-2021 (%)

	2011	2016	2021
BAM (Euskaldunak % 8)	2,4	1,6	1,9
Lapurdi barnealdea (Euskaldunak % 25)	8,7	5,4	5,7
Nafarroa Beherea eta Zuberoa (Euskaldunak % 50) ⁵	10,7	14,6	10,5

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

⁽³⁾ Hego Euskal Herriko eremu soziolinguistikoak bereizteko, 2001eko zentsuko euskararen ezagutza-datuak erabili dira. Sailkapen hau mantendu da edizioz edizio.


⁽⁴⁾ Euskaraz BAM bezala ezagutzen den eremua Baiona, Angelu, Biarritz, Bidarte eta Bokale udalerriek osatzen dute.

⁽⁵⁾ Nafarroa Beherean eta Zuberoan, 2016ko eta 2021eko edizioetan, lagina optimizatze ahalegina egin da. 2011ko herri berberak hartuz, 2016ko euskararen kale-erabilera % 13,1ekoa litzateke, eta 2021ekoa % 9,3koa. Ondorioz, taulan jasotzen den joera berresten da.

Azken bost urteetan, haurren erabilerak gora egin du

1989tik aurrera, euskararen kale-erabilerak **gora egin du** adin-tarte guztietan (bereziki, haurrenak eta gazteenak), adinekoen salbuespenarekin.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA.
EUSKAL HERRIA, 1989-2021 (%)




Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

Euskararen kale-erabilera altuenetik txikienera hau da adin-taldean **hurrenkera: haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak**. Nabarmentzekoa da haurren erabilaren eta gazteenaren artean dagoela alde handiena.

Helduen adin-taldea lehen aldiz bitan bereizi da 2021eko neurketan, eta heldu gazteak (25-44 urte) euskara gehiago darabilte heldu nagusiek baino (45-64 urte); 5 puntuko aldea dago (% 14,3 eta % 9,3 hurrenez hurren). Gainera, heldu-gazteak gehiago entzun dira euskaraz hitz egiten gazteak baino.

Beste hizkuntzak helduek erabiltzen dituzte gehien, eta adinekoek gutxien.


HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, ADINAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Adin berekoen arteko elkarrizketetan, **zenbat eta gazteago, orduan eta altuagoa da euskararen kale-erabilera**. Kasu honetan, heldu gazteen arteko erabilera ez da gazteen arteko erabileraren aurretik kokatzen. Heldu nagusien arteko erabilera, berriz, gehiago hurbiltzen da adinekoen arteko erabilerara. Azkenik, haurren arteko erabileraren eta gazteen artekoaren aldea ez da hain handia.

EUSKARAREN KALE ERABILERA, ADINAREN ARABERA ETA ADIN BEREKOEN ARTEAN. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Gazteek helduek baino euskara gehiago erabiltzen dute Gipuzkoan, Ipar Euskal Herrian eta Araban

Helduek gazteek baino gehiago erabiltzen dute euskara Nafarroa Garaian eta Bizkaian. Lurralde guztietan, haurrek hitz egiten dute gehien euskaraz, eta gutxien adinekoek.

Adin berekoen arteko elkarrizketei soilik erreparatuz gero, gazteen arteko kale-erabilera (% 7,7) helduen artekoa baino altuagoa da (% 5,8) Bizkaian. Nafarroa Garaian, ez dago alderik baten eta bestearen artean (% 4,4 eta % 4,6 hurrenez hurren). Azkenik, Araban eta Ipar Euskal Herrian, gazteen erabilera da altuena (% 6,2 eta % 6,7 hurrenez hurren), haurren artekoenaren gainetik (% 3,9 eta % 4,9 hurrenez hurren).

EUSKARAREN KALE ERABILERA, ADINAREN ARABERA, LURRALDEKA.
EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

Lurraldeetako euskararen kale erabileraren adin-taldekako bilakaera ez da homogeneoa

AZKEN BOST URTEEI BEGIRA, HONAKO ONDORIO HAUEK NABARMENDU DAITEZKE:

Haurren erabilerak gora egin du Bizkaian, eta behera Ipar Euskal Herrian. Gainerako lurraldeetan, ez dago alde esanguratsurik. Arretaz begiratu behar dira hurrengo edizioan Bizkaiko eta Ipar Euskal Herriko haurren erabilerekin hartzen duten joera.



Gazteen erabilerak gora egin du Araban, Bizkaian eta, bereziki, Ipar Euskal Herrian; eta behera Nafarroa Garaian eta Gipuzkoan.



Helduen eta adinekoen erabilerekin behera egin dute Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa Garaian. Gainerako lurraldeetan, ez da aldaketa esanguratsurik gertatu.



1989TIK HONA, BERRIZ, HONAKO ONDORIO HAUEK AZPIMARRATU DAITEZKE:

Lurralde guztietan egin du behera adinekoen erabilerak. Gehien (edo ia gehien) hitz egitetik gutxien hitz egitera pasatu dira.




Ia lurralde guztietan gora egin du haurren erabilerak. Nafarroa Garaiko haurrek duela 30 urteko erabilera-maila antzekoa dute.



Gazteen eta helduen erabilerekin dagokienez, EAEko lurraldeetan gora egin dute; Nafarroa Garaian, ez da aldaketa esanguratsurik atzeman; eta, azkenik, Ipar Euskal Herrian, gora egin du gazteen erabilerak; eta behera helduen erabilerak.




EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. GIPUZKOA, 1989-2021 (%)




Iturria. Soziolinguistika Klusterra.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. BIZKAIA, 1989-2021 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. NAFARROA GARAIA, 1989-2021 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. IPAR EUSKAL HERRIA, 1997-2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. ARABA, 1989-2021 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago gailentzen zaio emakumezkoen euskararen kale erabilera gizonezkoenari

Haurretan, gazteetan eta helduetan altuagoa da emakumezkoen euskararen kale-erabilera gizonezkoena baino. Portaera hori **aurreko edizioetan ere behatu da**. Desberdintasun handiena haurren eta gazteen adin-taldeetan gertatzen da. Adinekoen kasuan, ordea, gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago darabilte euskara.

Beste hizkuntzek presentzia handia dute heldu gizonezkoen arteko elkarrizketetan; heldu gazteetan gehiago heldu nagusietan baino.

HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, ADIN ETA SEXU BEREKOEN ARTEAN.
EUSKAL HERRIA, 2021 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Haurrak eta nagusiak batera daudenean euskararen erabilera altuagoa da, bereizita daudenean baino

Euskararen erabilera-daturik altuenak haurrak eta nagusiak daudenean jasotzen dira, eta baxuenak haurrik ez dagoen elkarrizketetan. **Nagusien erabilera bikoiztea edo hirukoiztea dakar haurrak solaskide izateak**, lurralde guztietan.


Beste hizkuntzen kasuan, haurren arteko erabilera oso urria da; baina horiek nagusiekin elkartzen direnean, gora egiten du beste hizkuntzen kale-erabilerak, nagusien arteko erabilera-mailaren parera iristeraino.

HIZKUNTZEN KALE ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA.
EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. EUSKAL HERRIA, 2006-2021 (%)



Haurrak eta nagusiak nahastuta egiten den euskararen erabilera altuena izan da **edizio guztietan**. Gainera, **goranzko joera** sumatzen zaio. Haurren arteko elkarrizketetan, aurreko joera negatiboa aldatuz, gora egin du euskararen erabilera azken bost urtean. Beste neurketa batzuk beharko dira haurren arteko kale-erabileran joera-aldaketa gertatu den berresteko.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.



Hiriburuetan altuagoa da beste hizkuntzen erabilera Euskal Herri osoan baino

Donostian, euskararen kale-erabilera % 15,3koa da, eta gainerako hiriburuetan % 2,5-4 artean dago. Aipagarria da, hiriburu hurrenkeran, **Gasteiz bigarren postuan** kokatu izana. Gogora dezagun Araba dela erabilera baxuena duen lurraldea. Gasteizen eta Bilboren kasuan, euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren beste hizkuntzen kaleko erabilera azpimarratu behar da, % 4-5ekoa baita. Baionan, berriz, % 3,4koa da gaztelaniaren kale-erabilera.

Euskararen
erabilera
maila

% 15,3
Donostia


% 3,5
Bilbo

% 2,7
Iruñea

% 2,5
Baiona

% 4,1
Gasteiz


HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, HIRIBURUETAN. EUSKAL HERRIA, 2021 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Azken hamar urteotan, gora egin du euskararen kale-erabilerak Gasteizen. Gainerako hiriburuetan, ez da aldaketa esanguratsurik gertatu. 1989tik hona, Hego Euskal Herriko hiriburu guztietan igo da euskararen kale-erabilera.

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA, HIRIBURUETAN. EUSKAL HERRIA, 1989-2021 (%)³



Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

⁽²⁾ 2016tik aurrera, Donostian bi auzo gehiago neurtzen dira: Igeldo eta Añorga. Auzo horien datuak kontuan hartzen ez badira, erabilera % 13,9koa zen 2016an eta 12,9koa 2021ean. Bestalde, Baionan, eremu berri bat behatu da 2021ean: Saint Croix. Eremu horren datuak kontuan hartzen ez badira, erabilera % 2,1ekoa da; eta, horiek kontuan hartuz gero, % 2,5ekoa da.





ONDORIOAK

┌ Zertan da
euskararen
kale erabilera?

7.1

ZERTAN DA EUSKARAREN KALE ERABILERA?

Euskal Herriko kaleetan, euskaraz ari da zortzi lagunetatik bat

Hego Euskal Herriko kaleetan gertatzen diren elkarrizketa gehienak gaztelaniazkoak dira eta Ipar Euskal Herrian frantsesezkoak. **Euskarazko elkarrizketak gutxiengo nabarmena dira.** Euskara hizkuntza minoritarioa da, gutxiengoak darabilena; baina, batez ere, minorizatua edo gutxitua da. Euskara **egoera zaurgarrian** dago.

Bere lurraldean gutxiengo batek bakarrik menderatzen du euskara. Baina, Ipar Euskal Herrian ia herritar guztiek dakite frantsesez, eta Hegoaldean gaztelaniaz. Gainera, bizitza pertsonalaren nahiz sozialaren funtzio guztiak bete daitezke frantsesez edo gaztelaniaz inolako arazorik gabe. Aldiz, ezinezkoa da euskara erabiltzea hainbat harremanetarako eta hainbat zeregin aurrera eramateko.

Kaleko behaketek erakusten dute euskararen erabilera baldintzatuta dagoela. Batetik, gutxiengo izaerak baldintzatzen du, hiztun elebidun euskaldunak solaskide euskaldunak behar

dituelako euskara erabili ahal izateko. Bestetik, hizkuntza gutxitu izaerak eragiten du, **baldintza legal, politiko, sozial eta kulturalen arabera hizkuntza bat ala bestea hautatzea errazago edo zailago** bihurtzen baita hiztun elebidunentzat.

Azken bost urteotan, ez da gorabeherarik izan euskararen kale erabilera orokorrean

Oro har, euskararen presentziak ez du aldaketa nabarmenik izan azken neurketatik hona (2016-2021); ez da presentziarik galdu kalean. Are gehiago, 1989. urtetik hona, 1,8 puntu egin du gora euskararen kale-erabilerak. 2006an neurtu zen kalean euskararen erabilera-mailarik altuena (% 13,7), ondoren beherakada txiki bat neurtu zen (2011, 2016), eta **azken bost urteetan erabileraren datuak ez du gora edo behera egin.**

Gainbehera zihoan **hizkuntza gutxitua biziberritzeko prozesua emankorra izan da XX. mendearen erdialdetik hona**, eta euskararen egoera soziolinguistikoa nabarmen hobetu

da ordutik, orokorrean. XXI. mendearen lehen laurdenean, mundu globalizatu eta aldakorrean, **hizkuntza handienek indar eta eragin oso handia** dute; tartean euskararen lurraldean hegemoniko diren gaztelania eta frantsesak.

Munduko hizkuntza gehienak ere egoera kezagarrian edo larrian daude, UNESCOk eta beste hainbat erakundek eta adituk, behin eta berriro, ohartarazi dutenez. **Bioaniztasuna galtzen ari den modu berean ari da galtzen munduko hizkuntza aniztasuna**, horrek dakarren giza, kultur-, eta ezagutza-galerarekin.

Euskarak izango duen bilakaera ez dago ziurtaturik. Desagertze-prozesuan dauden hizkuntza-komunitateen errealitate gordinerantz jotzea gerta liteke. Edo Europako tamaina ertaineko hizkuntzen egoerara hurbildu daiteke, **gaur egungo baldintzetara egokitzen asmatzen bada eta euskararen hautua egingo duten pertsonen bizimoduan funtzio esanguratsua betetzen badu**.

Lurralde batetik bestera aldeak daude euskararen kale erabileran, eta azken 30 urteetako bilakaera ere ez da homogenea lurralde guztietan

Euskal Herria ez da homogenea euskararen presentziari, ezagutzari eta erabilerari dagokienean. Kale-erabileraren emaitzek begi bistan utzi dute aniztasun hori: Gipuzkoan hitz egiten da gehien; ondoren, Bizkaian; eta azkenik, Nafarroa Garaian, Ipar Euskal Herrian, eta Araban (antzeko datua jaso da hiru lurraldeetan).

Epe luzeko ikuspegian, 1989tik 2021era, joera desberdinak izan dituzte administrazio eremuek: gora egin du euskararen kale-erabilerak EAEko lurraldeetan; Ipar Euskal Herrian, joera beherakorra du 1997tik; eta Nafarroa Garaian, berriz, gorabeheratsua da bilakaera, baina gorabehera txikiak dira, beti ere (1,8 puntuko aldakortasuna).

Hizkuntzen erabilera baldintza demografiko, ekonomiko, politiko eta kulturalen arabera izaten da. **Erabileraren bilakaerak ezin dira faktore bakarreko kausa-ondorio dinamikien bidez azaldu**. Konplexutasun horrek ezinezko bihurtzen du gune eta baldintza guztietarako eraginkorra izango den esku hartze formula asmatzea. Dena den, kaleko erabileraren lurraldekako bilakaeran ikus daiteke posible dela **baldintzak hobetu eta progresiboki erabilerak gora egitea**. Horrek, babes legala, ekonomikoa, eta etengabeko ahalegina eskatzen du, bai maila

politikoan, bai sozialean, eta baita norbanakoen aldetik ere. Euskara sustatzeko politika aktibo iraunkorrak beharko dira, eta atxikimendu soziala eta herritarren hautu kontzientea, inertiak hizkuntza hegemonikoen alde egingo duelako beti.

Eremurik euskaldunenean behera egin du euskararen kale erabilerak

Testuinguru soziolinguistikoak eragin handia du kale-erabileran; eremu euskaldunenean entzuten da euskara gehien, eta alderantziz, gutxien erdaldunenean. Edizio guztietan gertatu da hori, baina desberdintasunak daude eremuetako erabileraren bilakaeran.

Duela hogeita hamar urte euskaldunak % 75 baino gutxiago ziren udalerrietan egin du gora euskararen kale-erabilerak 1993tik. Abiapuntuko erabilera-mailarekiko hazkunde-proportzio handiena % 25-50 ezagutza-eremuak izan du, eta ondoren, % 50-75 ezagutza-eremuak. Oro har, eremu bakoitzaren barne-osaera aldatu egin da urteek aurrera egin ahala; eremu erdaldunena euskaldunduz joan den bitartean, eremu euskaldunena erdaldunduz joan da. **Udalerrien konbergentzia-joera ikusten da**; udalerrri bakoitzeko euskararen ezagutza-maila aldatuz joan ahala, **erdiko eremu soziolinguistikoetan gero eta udalerrri gehiago** daude eta muturreko eremuetan, berriz, gero eta gutxiago.

Nabarmentzekoa da eremu erdaldunean, alegia, **duela hamarkada batzuk euskararik entzuten ez zen hainbat lekutan, euskararen erabilera hazi** egin dela. Hala ere, hirigune handietan eta beste zenbait eremu geografikotan erabilera oso baxua da. Aipatutako eremuetako zenbait udalerrri biztanleria handikoak direnez, bertan euskaldun kopuru handia bizi arren, proportzio txikiaosatzen dute. Hiztunen proportzioak eta haien ikusgaitasun publikoa murrizteak minorizazioa dakar. **Euskaldunen arteko dentsitate handiko gune erosoak** sortu edo aurkitu ezean, euskara erabiltzeko aukerarik ere ez dute izango.

Aitzitik, **eremu euskaldunenean erabilerak behera** egin du. Herri ertain eta txikiak dira eremu honetakoak. Biziberritze-prozesurako interes estrategikoa dute euskaldun dentsitate handiko eremuek, bertan euskara modu naturalean transmititu, birsortu eta elikatzen baita. Arretaz jarraitu beharrekoak dira udalerrri horietan hizkuntzaren bizi-indarrari eragiten dioten faktoreetan gertatzen diren aldaketak: ingurunean bertan bizi-proiektu bideragarriak garatzeko aukerak, hirigintza-proiektuen eragina, barne- eta kanpo-migrazio fenomenoak...

Adin-talde guztietan igo da euskararen erabilera 1989tik, adinekoetan izan ezik

1989tik 2021era haurren eta gazteen euskararen erabilera 4 puntu inguru igo da eta helduena 2,3 puntu. Adinekoen erabilerak 5,6 puntuko jaitsiera izan du. Azken neurketatik hona (2016-2021), haurren euskararen erabilera igoera neurtu da (% 18,3tik % 19,3ra). Gazteen, helduen eta adinekoen erabilerak, aldiz, ez du gorabehera esanguratsurik izan (+/- 0,2) bost urte horietan. **Euskararen erabilera baxuagoa da adin-talde bereko hiztunen arteko elkarrizketetan.**

Duela hogeita hamar urte, gazteek zerabilten euskara gutxien kalean; gaur egun, ordea, adinekoek. Belaunaldi gazteetan euskaldunen proportzioak gora egin du, eta adinekoetan, aldiz, behera. Izan ere, 1989an adinekoen taldea osatzen zutenak desagertu ahala –euskaldunak zirenak proportzio esanguratsuan–, adinekoen multzora igaro dira orduan helduen multzo erdaldunagoa –guztietan erdaldunena– osatzen zutenak. Gainera, azken lau hamarkadatan, euskararen transmisioa asko zabaldu da. Besteak beste, eskolaren bidez euskaldundu dira milaka ume eta gazte.

Biztanleen adin-piramideari erreparatu, **gizartea zahartuz doan honetan, euskararen erabilera “gaztetu” egin dela esan daiteke**. Euskarak adin-piramidea iraultzea lortu du: haurrak eta gazteak dira euskara gehien darabiltenak, eta helduak eta adinekoak gutxien. Hurrenkera hori aldatu izana lorpen sozial handia da. Izan ere, munduko eta Europako hizkuntza gutxitu gehienetan galera-

prozesuaren hurrenkera mantentzen da, batez ere erabileran: adinekoek erabiltzen dute gehien eta gazteenek gutxien. Hori dela-eta, kualitatiboki, **biziberritzerako egoerarik mesedegarrienean** aurkitzen da euskara belaunaldien arabera.

Hurrengo urteetako bilakaerari begiratzean, garrantzitsua da haur eta gazteen joerei erreparatzea, nahiz eta biztanleria piramidean pisua txikia duten, eta beraz, baita erabilera-datu orokorrean ere. Kontuan hartu behar da **eskolak euskaldundutako hiztun horien profil linguistikoa desberdina dela garai batean euskaldunen artean ohikoena zen profiletik**. Gaur egun, euskaraz hitz egiteko gai diren gazte eta haur gehienek gaztelania edo frantsesa dute lehen hizkuntza, eta hizkuntza horietan mintzatzeko erraztasun handiagoa dute.

Era berean, azpimarragarria da euskararen kale-erabilera baxuagoa dela gazteen artean haurren artean baino. Hain zuzen, **gazteen mundua ez dago euskarari haurrena bezain lotua**. Esaterako, haurrei zuzendutako eskaintzan presentzia handia du euskarak (kultur eskaintza, aisialdi antolatua, udalekuak...); gazteenean, ordea, eskaintza hori helduei eta adinekoek zuzentzen zaienara hurbiltzen da, euskarazko aukerak murriztagoak dira, alegia (sare sozialak, musika, kirola...).

Zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago gailentzen zaio emakumezkoen euskararen kale erabilera gizonezkoenari

Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik. Aldea handiagoa da haurretan eta gazteetan. Oro har, Euskal Herriko lurralde guztietan errepikatzen da fenomeno, eta neurketaren aurreko edizioetan ere behatu zen.

Euskararen biziberritze-prozesuan, emakumezkoen presentziak protagonismoa hartu du. Adibidez, emakumeen presentzia euskaltegietan edo euskararen aldeko egitasmoetan nabarmen handiagoa izan ohi da. Emakumeek eta gizonek euskara zein irudirekin eta zein baliorekin lotzen duten, eta horrek hizkuntza hautuan zein eragin duen aztertzea argigarria izan daiteke kaleetan behatutakoa hobeto ulertzeko. **Euskararen erabilerak genero-rolekin duen harremana** euskal soziolinguistikan gehiago sakondu beharreko gaia da.

Haurrak eta nagusiak batera dauden elkarrizketetan euskararen erabilera altuagoa da haurrak eta nagusiak bereizita daudenean baino

Are gehiago, haurrek eta nagusiek osatutako elkarrizketetan, gora doa euskararen kale-erabilera. Horrek erakusten du **haurren eta nagusien arteko elkar-eraginak mesede egiten diola euskararen erabilerari**. Guraso izateak askotan dakar euskararekiko kontzientzia eta praktika indartzea, eta hurrekin euskaraz aritzea. **Indarrean dago haurren eta helduen arteko solasaldietan euskaraz egitera bultzatzen duen arau soziala**. Baina era berean, aipatutako jokaerak **ez du erabateko eragina berdinen arteko harremanetan**, harreman-talde horizontaletan.

Euskara, gaztelania edo frantsesa ez diren beste hizkuntzen kale erabilera % 3 ingurukoa da azken hamabost urteotan

Jatorri atzeritarreko biztanleak eta turistak dira beste hizkuntza horien hiztun potentzial nagusiak.

Jatorri atzeritarreko biztanleei dagokionez, kontuan izan behar da azken 20 urteetan

biztanlerian duten pisua hirukoiztu egin dela Nafarroan eta laukoiztu EAEn. Gaur egun, Hego Euskal Herriko lurraldeetako biztanlerian duten pisua % 10 eta % 16 bitartekoa da. Soziolinguistikoki esanguratsua da, halaber, multzo horren barruan **jatorritik gaztelania hiztunak % 50 baino gehiago** direla.

Kale-erabilerari erreparatuz, beste hizkuntzen hiztunak gutxiengoa dira eta, beraz, beste hizkuntza horietan hitz egiteko aukera mugatua da. Jatorri atzeritarreko biztanleria hazi arren, beste hizkuntzen erabileraren datua maila berean mantentzen da. Horrek iradokitzen du **iritsi berri den populazio horrek tarte labur-ertainean lurraldean ohikoenak diren hizkuntzak (gaztelania eta frantsesa, nagusiki) erabiltzen dituela kalean**.

Kale-neurketan jasotako beste hizkuntzen erabilera **datuak bat datoz, neurri batean, jatorri atzeritarreko biztanleriaren ezaugarri demografikoekin**. Arabako kaleetan entzun dira, batez ere, euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzak eta gizonezko helduen arteko elkarrizketetan nabarmendu da erabilera altuena –heldu gazteetan gehiago heldu nagusietan baino–.

Hiriburuetan nabarmentzen da beste hizkuntzen presentzia. Baionako, Gasteizko eta Bilboko kaleetan euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen erabilera euskararena baino altuagoa da. Iruñean parekoa da beste hizkuntzen eta euskararen erabilera maila. **Hiriguneek jatorri atzeritarreko biztanleriaren bizileku bezala eta turismo gune bezala ezaugarri bereziak** dituztela kontuan hartu behar da.

7

NONDIK EGIN AURRERA?

Testuinguru honetan, euskararen erabileraren hazkunde nabarmena lortu nahi bada hurrengo hamarkadetan, egokitzapenak eta berrikuntzak aplikatu beharko dira joan den mendean abiatutako biziberritze-ekimenetan; besteak beste, hizkuntza-politikan eta euskalgintza osatzen duten erakundeen eta mugimenduen jardunean. Nazioartean nahiz Euskal Herrian sortu diren **erronka eta premia berriei eraginkortasunez erantzuteko** indarberritze sakona behar da.

Ikerketa soziolinguistikoak funtzio garrantzitsua du egiteko horretan. Hizkuntzarekin lotutako egoera eta dinamika sozialak ulertzerakoan eta esku hartze eraginkorrak sortu eta hobetzerakoan, **ezagutza zientifiko zorrotza hartu behar da oinarritzat**. Era berean azterketa eta ikerketa-proiektu desberdinetatik eskuratutako informazioa eta jakintza trukatzeko, kontrastatzeko eta horren gainean hausnartzeko guneak beharrezkoak dira. Hizkuntza biziberritzeko egitasmo partekatua ezagutza- eta **hausnarketa-sare partekatua** behar du.

Gizarte-bizitzaren esparru orotan euskararen **erabilera erosoako aukera** bermatzeko, euskaraz inongo eragozpen eta zailtasunik gabe egin ahal izateko, hizkuntza-biziberritze prozesua indartu eta zabaldu behar da. Erabilerarako baldintza erosoak bermatzeko bide horretan, **euskararen ezagutza unibertsalizatzeak tarteko helburu** gisa joka dezake, besteak beste.

Esan liteke, azken urte hauetako ikerketei, adierazpen publikoei eta esku hartze proiektuei erreparatuz, **adostasun zabala dagoela landu eta jorratu beharreko alorretan**. Gehien aipatu direnen artean, honako hauek daude: hezkuntzan haur eta gazteen euskararen ezagutza-maila egokia bermatzea, herritarren sentsibilizazioa eta erabilera-ohituren finkapena, helduen euskalduntzea, esparru sozio-ekonomikoa, eremu digitala eta hizkuntzaren teknologiak, eremu-ez formalean euskararen eskaintza (ikus-entzunezkoak, kirola, aisia...) bermatu eta biderkatzea, Euskal Herrira heldutako migratzaileen inklusioa eta aniztasunaren lanketa, euskal kultura sistema (sorkuntza nahiz kontsumoa) sendotzea, eta hizkuntza-eskubideen bermea.

Esparru horietako neurri eta politikak ezin litezke berberak izan leku guztietan, eta egokitu beharko dira Euskal Herriko eremu administratibo eta soziolinguistikoen errealitate askotarikoetara, zein jorratu beharreko sektore eta entitateen egoerara. Lurraldeen arabera aniztasuna, lan-arlo edo sektore bakoitzaren egoera, gizatalde bakoitzaren bizi-baldintzak eta ohiturak... guztiak hartu beharko dituzte kontuan garatuko diren ekimen eta politikei eraginkorrak izateko.

Bestalde, euskararen biziberritze-prozesuak garai berri hauetara egokituriko **narratiba eta diskurtso berriak** eraiki beharko ditu. Euskararen biziberritze-prozesua kultur- eta hizkuntza-aniztasunaren defentsarekin batera landu beharko da. Gainera, feminismoa edo ekologismoa bezalako pentsamendu korrontekin eta **gizartea aktibatze eta eraldatzeko gaitasuna erakusten duten mugimenduekin loturak** estutzea oso baliagarria gerta liteke.

Euskararen biziberritzearena, ilusioz, erabakimenez, enpatiaz eta inteligentziaz gauzatu beharreko prozesu berritzaile eta eraldatzailea da, bizikidetzaz zainduz eta gizarte hobe bat eraikitze bidean.



JARDUNALDIA

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketaren emaitzek kaleetan gertatzen diren hizkuntza-praktiken irudia ematen dute. Informazio hori eskura izanik, praktika horien atzean dagoen errealitate soziolinguistiko konplexua interpretatu eta ulertzea da erronka. Soziolinguistika Klusterrak interpretazio-, eztabaida-, hausnarketa- eta kontraste-ariketa kolektiboa proposatzen du, eta horretarako topagunea antolatu du. Euskararen biziberritze-prozesuan lanean diharduten ikerlari, teknikari, arduradun politiko, aholkulari, irakasle, aktibista eta gaian interesa duen herritar orok aukera izango du aipatutako topagunean parte hartzeko:

EUSKAL SOZIOLINGUISTIKA JARDUNALDIA 2022

2022ko ekainaren 22a

Bizkaia Aretoa, Bilbo

Antolatzailea: Soziolinguistika Klusterra

Laguntzaileak: Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala

www.soziolinguistika.eus/jardunaldia

Soziolinguistika Klusterra euskara biziberritzeko ikergunea da. Ezagutza soziolinguistikoa sortzen eta kudeatzen du euskara biziberritzeko prozesuaren beharrei erantzuteko. Euskara biziberritzen diharduten eragileen soziolinguistika alorreko gaitasunak baliatu eta areagotzea du helburu. Horretarako, proiektuak garatzen ditu unibertsitateko ikerlariekin, eremu publiko eta pribatuko teknikariekin, euskaltzale antolatuekin eta denetarikoa aditu eta herritarrekin elkarlanean, ezagutza teorikoaren eta arlo aplikatuaren arteko zubiak eraikiz.

Metodo zientifikoan oinarrituta zorroztasunez dihardu, eta horrek eragileekiko autonomiaz jokatzeko zilegitasuna ematen dio.

Osagarritasunean eta lankidetzan oinarritzen da sinergiak garatu eta proiektu eta ekimenen balio erantsia areagotzeko. Horregatik, elkarlanean egiteko proiektuak lehenesten ditu berrikuntza irekiaren markoan.

Euskara biziberritzeko erronkan aurrera egitea da bere izateko arrazoia, eta egindako proiektuen emaitzak gizartean zabaltzen ditu gardentasunez. Gainera, arduraz jokatzeko du bestelako gaietan ere gizarte berdintasuneko baten alde, besteak beste, genero berdintasunean, iraunkortasunean eta diskriminazioen aurka.

Euskararen lurralde guztiak kontuan hartzen ditu hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa aztertzerakoan, eta, bere jardueraren bidez, guztietan eragiteko bokazioa du.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Bazkideak:

Euskaltzaindia (Ohorezko Bazkidea) | AEK | Artez euskara zerbitzua | Bermeoko Udala | Bilboko Udala | Donostiako Udala | Elhuyar | Emun | Erandioko Udala | Errenteriako Udala | Euskal Herriko Unibertsitatea | Euskaltzaleen Topagunea | Eusko Ikaskuntza | Hernaniko Udala | Ikastolen Elkarteak | Kutxa Fundazioa | Laboral Kutxa | Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Nafarroako Unibertsitate Publikoa | NETLE | Sakanako Mankomunitatea | Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea | Urtxintxa | Zumaiko Udala | 71 norbanako bazkide

www.soziolinguistika.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea z/g 20140 Andoain (Gipuzkoa)

☎ 943 592556 🐦 @slklusterra 📺 /slklusterra

Hizkuntzen
erabileraren
kale
neurketa



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea



www.soziolinguistika.eus/kaleneurketa2021